






z e n b a i t

k o l o r e

Arantzazuko beirateetako bat
Javier Álvarez de Eulate

1. Kolore nagusiak

Hona hiru kolore:



Adjektibo modura erabiltzen dira kolore-hitzok, eskuarki. Hartara, **izenaren eskuinean**:

- Koaderno **gorria**
- Axuri **beltza**
- Zaldi **zuria**

Kolore hitza sartuz gero, berdin:

- Kolore **gorriko** koaderno
- Kolore **beltzeko** axuria
- Kolore **zuriko** zaldia

- *Gorri koloreko koaderno
- *Beltz koloreko axuria
- *Zuri koloreko zaldia



Usadioak usadio¹ eta euskalkiak euskalki², hona kolorea adierazteko zenbait adjektibo:


<i>arre</i>	<i>berde</i>	<i>gris</i>	<i>kaki</i>	<i>okre</i>	<i>ubel</i>
<i>arrosa</i>	<i>blu</i>	<i>hori</i>	<i>magenta</i>	<i>orlegi</i>	<i>uher</i>
<i>azul</i>	<i>eskarlata</i>	<i>karmin</i>	<i>marroi</i>	<i>pinto</i>	<i>urdin</i>
<i>beilegi</i>	<i>fuksia</i>	<i>laranja</i>	<i>more</i>	<i>pikart</i>	<i>zian</i>
<i>beix</i>	<i>gorri</i>	<i>laru</i>	<i>musker</i>	<i>sepia</i>	<i>zuri...</i>
<i>beltz</i>	<i>granate</i>	<i>lila</i>	<i>nabar</i>	<i>turkesa</i>	

¹ Euskal usadioa(k) eta Mendebaldeko usadioa(k), alegia. Esaterako, '*urдина da kolore zuri nahastua*' euskal usadio zaharrean, Luis Villasantek Graziano Anduagari jasotako lekukotzaren arabera (*Aitonaren uzta*, 1961: 28). Hona OEHko beste adibide batzuk, esanahi bertsukoak: *Buruia ile urdinez ta aurpegia zimurrez; Zaldi urdinaren gainean...*
Koloreei buruz, jakingarri ederrez hornituak: Perurena, 1996; Preciado, 2009.

² Euskaltzaindiaren hiztegiak '*Heg.*' eta '*Herr.*' markekin agertzen du '*azul*', eta '*Ipar.*' eta '*Herr.*' markekin, '*blu*'. '*Pikart*', '*Ipar.*' markarekin. '*Laru*', berriz, '*Batez ere Bizk.*' iruzkinarekin. '*Uher*' hitzak, bestalde, '*Batez ere Ipar.*' oharra darama aldean.

2. -ail, -antz, -asta, -ats, -kara, -xka eta -zta atzizkiak

Adjektiboak osa daitezke, kolore-hitz nagusiei atzizkiok erantsiz. Tankera, itxura edo joera adierazten dute hitz eratorriok.



*Euskaltzaindiaren
hiztegia*

- **horail 3** adj. Ile horailaren kolorekoa; horixka. *Gari horailak.*
- **morantz** adj. Morearen antzeko kolorekoa.
- **gorrasta** adj. Gorrixka. *Ilea eta bizarra gorrastak.*
- **berdats** adj. *Ipar.* Berdexka. *Hango argiak dira ur barnean ageri, higikor eta berdats ura bezala.*
- **urdinkara** adj. Urdin itxurakoa, urdinxka. *Ke urdinkara bat.*
- **arrexka** adj. Kolore arrearen antzekoa, arrerantz jotzen duena. *Txori arrexka.*
- **zurizta** adj. *Zurixka.*

Kolore-hitz nagusietatik eratorritakoak

- AIL: *berdail, gorrail, horail, zuhail, zurikail, zurpail*
- ANTZ: *gorrantz, morantz, urdinantz*
- ASTA: *gorrasta, horasta*
- ATS: *gorrats, berdats*
- KARA: *belzkara, gorrikara, horikara, ilunkara, nabarkara, urdinkara, zurikara*
- XKA¹: *arrexka, berdexka, gorrixka, grisaxka, horixka, urdinxka, zurixka*
- ZTA: *horizta, zurizta, gorrizta*

¹ Estandarrerako, -XKA forma aukeratu da. Beraz, *arrexka*; eta ez gainerako aldaerak (**arreska*, **arrezka*).

3. 'Bitarteko koloreak: 'kolore-hitza + kolore-hitza'

Nahi beste konbinazio eta ñabardura egiteko aukera ematen du kolore-hitzak elkartzeak. Hona, esaterako, literatura-tradizioan zein egungo prosan agertzen direnetako batzuk:

- **arrosa-ubel**
- ...



Hurrengo
diapositibetan
adibide gehiago.

3. 'Bitarteko koloreak: 'kolore-hitza + kolore-hitza'

- **arrosa-ubel**
- **beltz-gorri**
- **beltz-ubel**
- **beltzurdin** adj. *g.er.* Distira urdinak dituen kolore beltzekoa.
Beleak moko horia du, luma beltzurdina
- **beltz-zuri**
- **berde-urdin**
- **berde-urdinkara**
- **gorbeltz** adj. *Zub.* Gorri-beltza. (= gorri iluna)
- **gorri-beltz**
- **gorri-ubel** *fr.* bordeaux; *es.* burdeos
- **gorri-more** *fr.* bordeaux; *es.* burdeos
- **gorri-urdin**



3. 'Bitarteko koloreak: 'kolore-hitza + kolore-hitza'

- **urdirarre** adj. Urdinaren eta arrearen arteko kolorekoa.
Harkaitz urdirarrea.
- **urdin-beltz**
- **urdin-gorri**
- **urdin-gorrixka**
- **urdin-nabar**
- **urdin-zuri**
- **zuri-beltz** Zuria eta beltza. *Haietako batek lerro zuri-beltzak zituen ilean, azkonarrak bezala.*
- **zuri-gorri 1** Aurpegiaren koloreaz mintzatuz, arrosa. *Larmintz mehe zuri-gorria.* **2** Zuria eta gorria. *Taldearen elastiko zuri-gorria.*
- **zuri-nabar**
- **zuri-urdin 1** Zuria eta urdina. *Elastiko zuri-urdina.*
- (...)

4. 'Kolore-hitz + adjektibo' moduko sintagmak

Koloreen distira eta asetasun-maila adieraz daitezke kolore-hitzei adjektibo hauetakoren bat gehituz:

argi, bizi, distiratsu, distirant, hil, hits, ilun, ilunkara, leun, margul, min, samin...

Laranja distiratsua
RGB 255, 35, 1





4. 'Kolore-hitz + adjektibo' moduko sintagmak

- Jertse **gorri argia**
- Zuretzako liliak, kolorez **gorri biziak**
- Sugar **urdin distiratsuak**
- Hodei **laranja distiranta**
- **Hori hil-hila**
- Ile-adats **marroi hitsa**
- Hosto **berde ilunak**
- Ortzi **gorri ilunkara**
- Ehunaren kolore **urdin leuna**
- Blusa **urdin margula**
- Ezpain **gorri minak**
- Behatzak **gorri saminez** tindatuak
- Zeruaren **urdin zurbila**
- ...

Erabilitako lanak:



Irale (2013/11/14). "[Verde azulado: nola eman euskaraz?](#)". In *Kontsulta Zerbitzua*, Eusko Jaurlaritza.

Perurena, Patziku (1992). *Koloreak euskal usuarioan*. Donostia: Erein.



Petirena, Patxi (2008/11/10): "[Koloreak](#)". In *2tzul. Itzultzaileen Irizpen Biltegia*, EIZIE

Preciado, Txema (2009): [Euskarak erakutsi koloreak ikusten](#). Eusko Jaurlaritza.

Kolore-kodeak kontsultatzeko:

Gallagher, Martin (d.g.). [Encyclopedia](#). *Web Safe HTML Color Codes Reference Chart*.